

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure idea printzipala, jesarlekuak saltzea da. Beraz, hauek behar dituzten enpresa, entitate-publiko eta familia guztiei saltzea dugu helburu eta gure produktua bakoitzaren beharretara egokitzen saiatuko gara.

Zenbait publizitate-kanpaina erabiliko ditugu jendea gure produktuak ezagutzeko eta teknologia berriak erabiltzeaz baliatuko gara haien harreta deitzeko. Gainera, gaur egunerarte mundua ez duenez honelako produkturik ikusi, ziur gaude jende asko erakarriko dugulaz. Baina hori ez da nahikoa izango, hasierako "boom" a pasata, gure bezeroak mantentzea nahi dugulako eta arazo konpontzeko hurrengo ideia hau pentsatu dugu: bankuak mikrotxip batzuen bidez funtzionatuko dute baina hauek ez dira betirako izango, lau urtero aldatu beharko direlako. Modu horretan, bezeroak mikrotxip horiek etengabe berriztatu beharko dituzte.

Eta horretaz gain, konponketa zerbitzua eskainiko diegu kontsumitzaileei edozein arazo badute lagundu ahal izateko. Konponketa zerbitzu hori Sergi Sarmiento, gure enpresako teknikariaren esku egongo da, bera da eta mikrotxip-ak jesarlekuetan jartzeaz arduratzen den pertsona eta teknologia/informatika esparruaren arduraduna baita ere.



Azkenik, jesarlekuak saltzen ditugun bitartean, hauek hobetzeko eta berritzeko teknikak ikertzen jarraituko ditugu, beraz, denborarekin jesarleku berriak aterako ditugu merkatura eta horrela etengabe, mugikorren merkatuan gertatzen den bezala. Horregaitik, gure esfortzu eta lan konstantearen bidez, bezeroen fideltasuna mantentzeko gai izango garela uste dugu.

